


KONTENEDORE BATEN ISTORIOAK

PATXO TELLERIA



FITXA ARTISTIKOA

AUTOREA **PATXO TELLERIA**

AKTOREAK **PATXO TELLERIA (Theodor Zakar)**

MIKEL MARTINEZ (Lionel Zabor)

Aktoreen ZUZENDARITZA **AITOR MAZO eta JOKIN OREGI**

ZUZENDARITZAren Koordinazioa **PATXO TELLERIA**

ZUZENDARI Artistikoa **JOSE IBARROLA**

JANTZIAK **NATI ORTIZ DE ZARATE**

ATREZZOA **CARLOS BAREA**

ARGIEN DISEINUA **JON MESPERUZA**

SOINU EFEKTUAK **RADIO EUSKADI**

ARGAZKIAK - KARTELA **JOSE HORNA**

EKOIZPENAREN ARDURADUNA **TOÑO PINTO**

EKOIZPENA eta BANAKETA **MASKARADA**









KONTENEDORE BATEN ISTORIOAK

Eskenatokian kontenedore pareak. Kontenedore batetik kea irteten hasten da.

Theodor. (Off)

Lionel! (...) Lionel Zabor! (...)Lagundu!!! (...) Lagundu!!

Beste kontenedoretik abots bat irteten da.

Lionel. (Off) Zer duzu?

Theodor. (Off) Laguntzeko!

Lionel. (Off) Orain ezin dut. Usteltzen ari naiz.

Theodor. (Off) Mesedez!

Lionelek burua agertzen du bere kontenedoretik.

Lionel.

Zer arraio, Theodor Zakar. Ezin al du batek bake ederrean zimeldu? Ea ba, zer duzu?

Theodor. (Off) Erretzen
ari naiz!!

Lionel.

Ikusten dut, ba. Eta?

Theodor. (Off)

Ez dut erre nahi!

Lionel.

“Ez dut erre nahi!”, “Ez dut erre nahi!” Esango dit, ba, jauntxoak zer demontregatik ez duen erre nahi! **Theodor. (Off)** Ez da une egokia.

Lionel.

Ze pitokeria da hori? Une guztiak dira egokiak erretzeko!

Theodor. (Off) Mesedez!!!

Lionel.

Ondo daaaa... ea zeozer aurkitzen dudana...

Theodor. (Off) Mugi azkar!

Lionel. Ba
noa!

Lionel bere kontenedorearen zaborrean bila hasten da. Ardo tetrabrick bat ateratzen du.

Lionel.

Hara, zorte ona izan duzula uste dut.

Theodor. (Off) Azkar!!

Lionel.

(Suiltzaileen sirena imitatuz baina presarik hartu gabe) “Ni-no-ni-no-nino...”

Ardoa botatzen du kontenedorean. Kea itzaltzen da. Theodorrek burua agertzen du. Bustita dago eta ardo txorrotada bat botatzen du ahotik.

Theodor.

Mmmmmm! Ozpinduta zegoen!!

Lionel.

Zer nahi duzu, ez dut oraintxe bertan deskortxatu, hain zuzen.

Theodor.

(Ironiaz) Ba eskerrik asko, motel.

Lionel.

Ez horregatik, denok gara zaborra, ez?

Theodor.

(Ingurura begira, amorruz) Kontenedoreak erretzeko mania hori!! Baina zer gertatzen da, detergentea edaten duzue? Zer egin dizuegu? (Lioneli) Zer egin diegu, Lionel?

Lionel.

Ah! Nork ulertzen du gizakumeen jokabidea?

Theodor.

Ergel hutsak dira, nire eritziak ajola badizu.

Lionel.

Ajola dit, Theodor, baina horrek ez du esan nahi arrazoi duzunik. Guk ezin dugu jendearen gainean eritziarik eman. Ez gara jendea. Zorionez.

Theodor.

Zorionez, bai. “Vade retro!” Dena den, guk ezin dugu jendearen gainean eritzirik eman, baina jendeak gure gainean txiza egin dezake. (...) Ganorabako batek ia kixkali nauela pentsatze hutsarekin...!

Lionel.

A ze esajeratua! Lau paper ziztrin ziren. Zergatik ez duzu erreakzionatu?

Theodor.

Eh?

Lionel.

Geldi geldirik geratu zara, ezer egin gabe. Munipa bat ematen zenuen.

Theodor.

Egia da. Beldurrak blokeatu nau. Ez nuen hola bukatu nahi.

Lionel.

Hola bukatuko duzu, eta laster, gainera.

Theodor.

Badakit.

Lionel.

Prest zenundela uste nuen.

Theodor.

Eta prest nago.

Lionel.

Orduan?

Theodor.

Gauza bat da errausketa planta batean erretzea, behar den moduan, zure hurkoen ondoan, eta beste bat kontenedore batean kiskaltzea, zergatik edo zertarako jakin gabe. Zentzurik gabeko bukaera da. Eta hainbeste urtetan usteltze lanean su eta gar aritu da gero, batek azkeneko orduan duintasun amini bat eskatzen du. Batez ere zaborteziaren ondoren ezer ez dagoela dakigularik.

Lionel.

Ezer ere ez.

Theodor.

Ezer ere ez.

Lionel.

Badago inozorik eternitatean sinisten duena. (Kontenedorearen barrurantz hitz egiten) Ba ez dago ezer, argi dago?

Theodor.

Norekin ari zara?

Lionelek plastikozko esne botila bat ateratzen du.

Lionel.

Erreziklable batekin.

Theodor.

Buf, utikan.

Lionel.

Ea buruan sartzen zaizun: ez dago bigarren aukerarik! (Bota egiten du)

Theodor.

Alferrik ari zara, ez dute erremediorik. Hondakin izateaz lotsatzen dira. “Eh, aizu, gu ez gara zaborra” **lionel.**

“Gu “zabor birziklagarria gara.” **Theodor.**

Eta platano azal batek hurrengo bizitzan ordenadore portatila izango dela sinisten du.

Lionel.

Sekta arriskutsua dira.

Theodor.

Zabortegiaren opio dira.

Lionel.

Zezenari adarretatik heldu behar zaio. Gu zaborra gara.

Theodor.

Ondakinak.

Lionel.

Txatarra.

Theodor.

Eskoria!

Lionel.

Eta burua tente gabiltza.

Theodor.

Arazoa da amaiera iristen denean.

Lionel.

Gure kasuan, hemendik gutxira.

Theodor.

Orduan uste guztiak ustel. Eta gogorra da.

Lionel.

Nik oda bat konposatu dut une honetarako.

Theodor.

Banekien!

Lionel.

Zer?

Theodor.

Sentimentalismoan erori zara.

Lionel.

Ez!

Theodor.

Kikiltzen ari zara azken orduan.

Lionel.

Ez da egia!

Theodor.

Bigundu egin zara, lizunduriko laranja baten moduan.

Lionel.

Ez dakizu zertaz ari zaren!

Lionel bere kontenedorean sartzen da.

Theodor.

Ta eskena lakrimojeno bat egin nahi didazu...

Lionel.

Utzi bakean.

Theodor.

Ez nuen zugandik espero patetismo hori.

Theodorrek ingurura begira eta ez du Lionel ikusten.

Theodor.

Lionel... (...) Lionel... Zertan zabiltz?

Lionel.(Off) (Minduta)

Zimeltzen.

Theodor.

Ez duzu irten behar?

Lionel. (Off) Zertarako?

Theodor.

Ez dakit... Elkarrekin egoteko.

Lionel. (Off)

Sentimentalismoaren sareak harrapatu zaitu?

Theodor.

Ondo da, ez dut ezer esan. *Theodor*

barrez hasten da.

Theodor.

Zure oda imajinatzen ari naiz. (Kantatuz) “Yo soy basura porque el mundo me ha hecho así...”

Lionelek burua ateratzen du.

Lionel.

Ez daukazu grazia izpirik.

Theodor.

Zelan da ba?

Lionel.

Bost ajola zuri.

Barruan sartzen da berriz.

Theodor.

Tira...

Lionel.

Ez.

Armonika bat ateratzen du sakeletik.

Theodor.

Filarmonikarekin lagunduko dizut.

Lionel. (Off) Apurtuta dago.

Theodor.

Baina txispak ateratzen dizkiot. (...) Ea ba...

Lionel. (Off) Ezetz!

Theodor.

Eta nire azken nahia dela esatan badizut?

Lionel burua agertzen du, Theodorrek armonika jotzen duelarik.

Lionel.

Sinisten dut egun batean erreko nautela. Sinisten dut nire errautsak tximiniatik gora irtengo direla, dioxina laino trinko bat osatuko dutela, larre batean jausiko direla. Sinisten dut nire errautsetatik belar izpi kontaminatu bat sortuko dela, behi batek belarra jango duela, esne kutsatua emango duela. Sinisten dut aitaxo batek esnea erosiko duela, bere alabatxoari biberoian eskeiniko diola. Sinisten dut alabatxoak kakapirria izango duela, eta zakarrontzia kakazturiko painalez beteko dela. Eta hala, gu sortu ginen zabor beretik, sortuko dira bestek.

Theodor.

Brabo! Higuningarria! Eskoria! Detritus! Zaborra!

Lionel.

Beno, beno, ez da hainbesterako.

Theodor.

Oilo ipurdia jarri zait!

Lionel.

Zera xume bat besterik ez da.

Theodor.

Manifiesto Basurista da.

Lionel.

Gehiegi zuritzen nauzu.

Theodor.

Badakizu Lionel? Hondakin batentzat suspergarria da bizitzak zentzua duela jakitea. Puzzlearen pieza guztiak beren tokian daudela.

Lionel.

Kontsolagarria da.

Theodor.

Horrek jendearengandik bereizten gaitu.

Lionel.

Utzi pakean jendea.

Theodor.

Ergelak dira. Urrutira joan gabe, normala irudituko zaizu hor egotea, kontenedore hondar pare bati begira.

Lionel.

Ez probokatu, ze gero gerokoa gertatzen da.

Theodor.

Zer egingo didate, ba? Zakarrontzira bota?

Lionel.

Akaso kontenedorea erreko dizute berriro.

Theodor.

(Publikoari) Ez dut ezer esan!

Lionel.

Hori bai zuhurra. Eta orain goazen barrura. Gutxi falta da.

Theodor.

Bai.

Lionel.

Pozik egon behar dugu.

Theodor.

Pozik nago, ba! Badakizu zergatik? Hodei toxikoagatik.

Lionel.

Hodei toxikoa?

Theodor.

Tximiniatik irtengo gara, dioxina laino batean. Beti desiatu dut egan egitea. Zerutik hiri osoa ikustea. Horixe, ba, pozik nago, bai jauna. (Kantatuz) "...ze poza, a ze poza, ze poz handia..."

Theodor publikoari begira geratzen da.

Theodor.

Lionel... (...) Lioneeeeel...

Lionel. (Off)

Hummmm!

Theodor.

Zertan zabiltz?

Lionel. (Off)

Erdoildu nahiko nuke, posible balitz!

Theodor.

Irten momentu bat!

Lionel irteten da.

Lionel.

Zer gertatzen da orain?

Theodor.

(Publikoaz) Erreparatu diezu? Hara nola begiratzen gaituzten, esanez bezala: "A ze koitadu pare!". Eta grazia dauka horrek, ze, ea ba, zein da bizitzaren hastapena?

Lionel.

Simaurra.

Theodor.

Eta amaiera?

Lionel.

Simaurra.

Theodor.

Hain zuzen ere. Zaborra gizateria baino pausu bat haratago dago. Are gehiago, zergatik dago gizakumerik munduan?

Lionel.

Norbaitek egin behar zuelako zaborra.

Theodor.

Norbaitek egin behar zuelako zaborra!

Lionel.

Baina hori badakigu.

Theodor.

Haiek ez.

Lionel.

Eta?

Theodor.

Erakutsi beharko genieke.

Theodor kontenedoretik ateratzen da.

Lionel.

Zuk detergentea edan duzu..

Theodor.

Horrela laburragoa egingo zaigu itxaronaldia.

Lionel.

Luzea egiten ari zaizu?

Theodor.

Apur bat.

Lionel.

Urduri zaude, akaso?

Theodor.

Ez. Zergatik egon behar nuen urduri? Baina dibertigarria izan daiteke. Zer egin dezakegu bestela?

Lionel.

Beno... Nik fermentatu nahi nuen apur bat gehixeago.

Theodor.

Baina zer diozu, Lionel, maitea, laztana, itxura ezin hobea duzu ta! Ustel kiratsa darizu kilometroetara.

Lionel.

Hori guztiei esango diezu.

Theodor.

Benetan. Zabortegei batean begiak itxita aurkituko zintuzket.

Lionel.

Bai, egia esan kirats berezia daukat, denek esaten didate gauza bera. **Theodor.**

“Eau de txipiron.” Higuingarria. **Lionel.**

Bah...

Theodor.

Oka egiteko modukoa...

Lionel.

Nahikoa, gorritzen hasia naiz.

Theodor.

Jarri dezagun alde batean gizakume arrunt bat, langilea, soldata itxurosoa irabazten duena; beste aldean komertzianta bat, berbajario dexentekoa.

Elkartu eta zer aterako da?

Lionel.

Zaborra.

Theodor.

Zaborra. Ea zer dugun hemendik...Nik langile inozoarena egingo dut.

Soldadore betaurrekoak eta kaskoa jazten ditu.

Lionel.

Nik egin nahi nuen langilearena.

Theodor.

Ados. Orduan egizu zuk komertziantearena. Gizakiak ordenadoreak ditu. Guk kontenedoreak. Bentaja horrekin jokutzen dugu.

Lionel.

Esaidazu ze zaborra botatzen duzun eta esango dizut nolakoa zaren.

Theodor.

Prest?

Lionel.

Bai. Goazen. **Theodor.**

“Homo basuriensis”. **Lionel.**

Edo nola gizajendea zaborra egiteko sortu zen.

Lionel kontenedoretik irteten da, tramankuluz beteriko gurditxo batekin.

Lionel.

Abenturako materialeak! Puentin, Eskeitin, Treikin, Raftin... Murgildu zaitez ur korrentean eta zure kontu korrentean murgilduko gara gu.

Theodor korrika pasatzen da aurretik.

Lionel.

Tssst!! Adrenalina txute bat?

Theodor.

Kolokatuta nago jada. Euskaldunako astilleroetan nabil soldadore.

Lionel.

Soldadore! Soldata dotore.

Theodor.

Eta barkatu, baina Artxandara igo behar dut.

Lionel.

Nondik, por la cara norte, por la cara sur?

Theodor.

Por la cara, besterik gabe. Lanorduetan ari naiz. Abenturatxo bat daukat hotel diskretu batean.

Lionel.

Ze abenturatxo mota? Kontau, kontau.

Theodor.

Ezin dizut kontau. Nire kontua da.

Lionel.

Eta neskarena, eta kontserjearena, eta garbitzailearena, eta taxistarena...

Theodor.

Egia. (Publikoaz) Eta hauena. Ez al da nire emaztea egongo!

Lionel.

Ahaztu hotela. Zuk anonimatoa behar duzu. Tori abentureroaren kit osoa: denda, lo zakuak, nabaja mil usos, infiernilloa, kazerolak, eta interina filipino bat.

Theodor.

Oh, primeran.

Lionel.

Hau ere ondo etorriko zaizue. (Kondo bat ematen dio)

Theodor.

Ah, kondoi bat, oso ondo!

Lionel.

Kondoi bat! Abentura gutxitan egona zara, eh? Hau emerjentziatzko kantinplora bat da.

Theodor.

Oh, jakina!!

Lionel.

(Beste kondoi bat emanaz) Hau ere ondo etorriko zaizue. **Theodor.**

Beste “kantinplora” bat? **Lionel.**

Mesedez!

Theodor.

Ez esan, poxpoluak siku gordetzeko? (...) Medizina eramateko? (...) Tiragoma bat egiteko?

Lionel.

Ez duzu inoiz preserbatibo bat ikusi, ala?

Theodor.

Oh, jakina.

Lionel.

Eta zer... Neska ondo dago?

Theodor.

Arnasa kentzeko modukoa.

Lionel.

Orduan eraman zazu oxijeno bonbona bat.

Theodor.

Gutxi pisatzen du.

Lionel.

Hutsik dago.

Theodor.

Zertarako nahi dut?

Lionel.

Ba edozein bazterretan botata uzteko, gizona.

Theodor.

Oh... Oso ondo.

Lionel.

Eta bide batez, hartu zabor poltsa hau eta barreiatu zazu menditik.

Theodor.

Ez dakit guztia eraman ahal izango dudana...

Lionel.

Zuk ez duzu zamarik eraman behar. Horretarako dago sherpa.

Theodor.

Sherparik duzu? **Lionel.**

(Robot bat atereaz) “Sherpamatic” bat. Ofertan daukat. **Theodor.**

Baina honek ez dit motxila eramango.

Lionel.

Ez, baina eramangarria da bera berez. Eta ingelesa daki. Esaiozu zerbait.

Theodor.

“Take my motxila, majete.” *Argia pizten zaio.*

Lionel.

Ikusten argia? Horrek “yes” esan nahi du. **Theodor.**

Ze potxoloa. Give me one. Brujularik duzu?

Lionel.

Galduta zaude? Orduan, hartu hau. (Liburu bat ematen dio) **Theodor.**

(Izenburua irakurriz) “De dónde venimos, a dónde vamos, estamos solos en la galaxia o acompañados. Guía práctica para orientar tu vida.” **Lionel.**

Niri asko lagundu zidan. Lehenago jonki nazkagarri bat nintzen. Orain drogodependiente naiz. **Theodor.**

Ni ez naiz horretan erori.

Lionel.

Inoiz ez da jakiten noiz. Hartu hau, badaezpada. (Kasko bat ematen dio)

Theodor.

Nola jakingo dut erortzen ari naizela?

Lionel.

Lurra nola igotzen den ikusko duzu. **Theodor.**

Bideo kamara bat duzu? Espedizioa grabatu nahiko nuke, “Al filo de lo Imposible”rako. **Lionel.**

Imposible.

Theodor.

Imposible zer?

Lionel.

Filoa.

Theodor.

Ah, ez dago filorik?

Lionel.

Baina afiladorea bai. (Ematen dio) **Theodor.**

Ba benetan, ez dakit hau guztia nola eskertu.

Lionel.

Zure irribarrearekin konformazen naiz, baina agian gehiegi eskatzea da, beraz, eman zure kreditu txartela.

Theodor.

(Ematen dio) Eskerrik asko.

Theodor.

Oh, kaka, lanera bueltatu behar dut.

Lionel.

Orain?

Theodor.

Bokataren ordua bokataren ordua da. Beste batean igoko naiz Artxandara.

Lionel.

Igotzen zarenean, eman goraintziak Mariari nire partetik.

Theodor.

Bai... Nola dakizu bere izena?

Lionel.

Ah, ez dizut esan? Nire emaztea da.

Theodor.

Hara, a ze kointzidentzia.

Lionel.

Mundua mukiz beteriko pasamontañasa da.

Theodor badoa materialearekin. Lionel bestaldetik.

Lionel.

Abenturako materialeak! Puentin, Eskeitin, Treikin, Raftin... Murgildu zaitez ur korronteetan eta zure kontu korrentean murgilduko gara gu!!

Theodor bueltan dator traste guztiak eskuan.

Theodor.

Hau da gizakiak egin ahal duen ganorazko gauza bakarra. Gainontzekoa ergelkeria hutsa da.

Lionel.

Daturik gabe ari zara. Gu Bilboko zaborra gara, ez dugu beste mundurik ezagutzen.

Theodor.

Eta? Hiri guztiak dira berdinak. Eta mundua hiri erraldoi bihurtu da.

Bilbaori buruz hitz egiten duena, beraz, munduari buruz ari da.

Lionel.

Baliteke. Eta orain ixiltasuna erregutuko nizuke.

Theodor.

Ixiltasuna. Batere arazorik ez.

Lionel kontenedorean izkututzen da. Theodor, bere kontenedoretik.

Theodor.

Ixiltasun hau aprobetxatu nahi nuke berriz ere goraiatzeko soldadorea bezalako kontsumitzaile-zaborgileen meritua. Eredu bat dira...

Lionelek burua ateratzen du.

Lionel. (Off)

Theodor!!!

Theodor izutzen da ohiuagatik.

Theodor.

Zer?

Lionel.

Ixiltasuna nahi dut!!!

Theodor.

Ba ez da nabari! A zelako ohiuak! Ixiltasuna nahi baduzu hasi zaitez zu zeugatik!!

Lionel barrura sartzen da desesperaturik.

Theodor.

Bihotza saltoka daukat.

Theodor desagertzen da. Kontenedorearen barruan dagoenean, irrati bat entzuten da, oso altu. Futbol partidu bat ematen ari dira. Lionelek burua agertzen du erresorte baten moduan.

Lionel.

Theodor!!! Theodor!!!

Ez da ageri.

Lionel.

Theodor!!!

Objeturen bat botatzen dio. Theodor altzatzen da.

Lionel.

Itzali irratia.

Theodor.

Zer?

Lionel.

Belarrietako tapoiak kentzen ditu.

Lionel.

Pakea nahi dudala!!!!

Theodor.

Hara, Lionel... Gauza bat esango dizut. Zabor jatorra zara, baina ez zait gustatzen karrasika hitz egiteko duzun mania hori. Eta itzali irrati hori, horrela ez dago usteltzerik eta.

Lionel.

(Amorrua nola hala eusten) Nik ez dut piztu.

Theodor.

Nik ere ez.

Lionel.

Ja! Bera bakarrik piztu da!

Theodor.

Ez dakit, baina ni ez naiz izan, ez zait futbola gustatzen!!

Lionel.

Niri ere ez. Itzali mesedez.

Theodorrek irratia hartzen du.

Theodor.

Ezin da itzali. Botoiak apurtuta daude.

Lionel.

Kendu pilak.

Theodor.

Ez dauka pilarik.

Lionel.

Apurtu zazu!

Theodor botatzera doa. Une horretan gol aukera nabarmena dago. Jokaldia jarraitzen dute forofoen moduan. Azkenean aurrelariak huts egiten du.

Biak.

Aiiii!!

Irratia itzaltzen da.

Theodor.

Itzali da.

Lionel.

Betirako ixildu da. **Theodor.** Bai, azkeneko hatsa.

Goian bego. "Bakea zurekin" *Botatzen du.*

Lionel.

Ea gurekin ere ote den. Agur.

Lionel desagertzen da berriro. Theodorren hurrengo monologoan zehar, Lionel aterako da, maleta hartu eta alde egingo du kasik eta eskenatik desagertu arte.

Theodor.

Forofismoa da gizakiek asmatu duten gauzarik tontoenetako bat. Hemengo forofoak hango forofoari gorrotoa dio. Eta bitxia da, ze hemengo forofoa hango forofo izango zen, zikoinak paketea hemen utzi beharrean han utzi izan balu. Forofoa berdin izango zen hooloigan edo tiffosi. Hau da, forofo bat bere buruari gorrotoa izateko gauza da. (..) Lionel, egin dezagun foro... Lionel? Lionel??

Theodorrek Lionel ikusten du, irteteko zorian dagoenean.

Theodor.

Nora zoaz?

Lionel.

Beste kontenedore batera. Moroa bazina Jasan deituko zinen.

Theodor.

Jasan?

Lionel.

Jasan Ezina.

Theodor.

Zer ba, usain ona daukat?

Lionel.

Munipa bat musuka akatuko zenuke zuk. Agur, betirako.

Lionel desagertu egiten da.

Theodor.

Bakarrik? Bakarrik zoaz? Beno, aukera bat da. Errausketa plantarako bidaia bakardadean egitea... Labearen aurrean zure txanda bakardadean itxarotea... Su garretan bakardadean kiskaltzea, ingurura begiratu eta inor ez kausitzea... Duintasuna, bai jauna. Zuk dituzu potroak!

Theodor kontenedorera sartzen da. Lionel berriro agertzen da. Maleta lurrean uzten du.

Lionel.

Buah!! Ez dakizu nola dauden kontenedoreak!!! Topera! Overbooking!
Beno... Zer egin behar dugu?

Theodor. (Off)

Zuk egin nahi duzuna. Ni neu azken hausnarketak egiten ari naiz. Eta ez molestatzea erregutuko nizuke.

Lionel.

Nahi baduzu, kamioia etorri artean, forofoarena egin dezakegu.

Theodor.

Avanti tuto presto, ea zer topatzen duzun.

Lionel bila hasten da amantal zuri bat eta zapi bat aurkitu arte.

Lionel

Zer moduz Alde Zaharreko tabernaria?

Theodor.

Ederto. (Publikoari) Zazpi Kaletako edozein taberna, edozein egunetan. Edozein? Ez. Gaur, katedralean, Oilaskoak jateko munduko txapelketaren finala dago jokuan.

Lionel.

Zer diozu?

Theodor.

Zu zeurera.

Lionel. "Oído cocina"!

Theodor.

Txikiteroak txikitoak bata bestearen ondoren edaten dituzte, herriko kanta jatorrak kantatzen dituzten bitartean. (Kantatuz) "Tenemos un defecto, que no nos gusta que no nos gusta... tenemos un defecto que no nos gusta el chacolí..." **Lionel.** "... pero el vino tinto sí..." Marchando dos de champis...!! Que sean tres!!

Theodor bufanda astindiz saltoka hasten da.

Theodor.

Txapeldunak, Txapeldunak, oe oe oooooe!!!

Lionel.

Eh, gazte, gazt!! Zer? Zer gertatu da?

Theodor.

Izugarria izan da. Finalean berrogeitamar oilasko jan behar zituzten ordu erdiko bi denboratan. Lehenengo zatian, oso ondo. Mastikazio ona, lixeriketa hobe... Baina bigarren zatian...

Lionel.

Zer?

Theodor.

Huts egiten hasi dira. Flatulentzia... Bihotzerrea... Almorranak pilpilean...

Lionel.

Beti huts egiten dugu bigarren zatietan.

Theodor.

Dena den, testosterona hutsagatik, minutu erdia falta zenean, hego bakar bat falta zitzaigun txapela eskuratzeko. Orduan Txirrik hegoa hartzen du baina ezin du jan, Txutxiri pasatzen dio, berau saiatu baina oka hasten da, orduan Txikik eskatzen du hegoa beste bandatik, jasotzen du, kontrolatu, ahoan sartzen du, estadioa ohiu betea da...

Lionel.

Aupa, Txiki!

Theodor.

Hamar segundu geratzen dira, baina ezinean dabil, 9, 8, 7, 6, 5, 4, 3, 2, 1... eta orduan... Oh, orduan... Estadioa mutu geratzen da, denbora gelditzen...

Txikik begiak itxi eta "i-ren-tsi- e-gi-ten-du!" **Los**

dos.

Oe oe oe oe....!

Olatua egiten dute.

Theodor.

Hau bezalako uneetan bertokoa izateaz harro sentitzen zara. Eta kitto.

Lionel.

Eta kitto.

Theodor.

Nik zelaira salto egin eta bufanda bandejaren koipetan busti dut. (Eman egiten dio) Tori. Zuretzat.

Lionel.

Ez, nik ezin dut...

Theodor.

Bai, benetan, ni bertan egon naiz, ez dut gehiago behar. Agur, banoa telebistan haginkadarik onenen errepikapena ikustera.

Lionel.

Milesker... Nik, ez dakit zer esan. **Theodor.**

Ez esan ezer. Bakarrik... (emozionaturik) "We are the champions..."

Urruntzen da. Lionel geratzen da, kantu kantari.

Lionel.

"We are the champions, we are the... champions, we are..." (Ez daki kanta eta aldatzen du) "Txiki, txiki, txiki es cojonudo..." **Theodor.**

Ergelak eh?

Lionel.

Zuk azaleko azterketa egiten duzu. Forfoak estadioan hustutzen du demaseko adrenalina, eta irtetea erlajaturik dago, atsegina da euren familiakoekin beraiekin ere... Sinistuidazu, forfo izatea osasuntsua da.

Theodor.

(Minduta) Oso ondo, beraz, gizateria zentzuduna da. Hiria erloju baten makinaria perfektoa. **Lionel.**

Ez. Misterioak daude. Esatebaterako: "Udaltzainen misterioa ". **Theodor.**

Beno...!

Lionelen hurrengo hitzak eta keinuak Theodorrek errepikatuko ditu, milaka aldiz entzun dituela azpimarratuz,

Lionel.

Munipak jende arraroa dira, ze atasko batean edo atso bat lurrera konorterik gabe jausten denean, ez dira mugitu ere egiten. Baina bigarren lerroan aparkatzen baduzu buzoian karta bat botatzeko, bueltan, zas! Multa. Alde batera eta bestera begiratu eta inor ez. Non sartu da munipa? Nola izan da kapaz hamar segundutan kotxea ikusi, isuna idatzi, moztu, jarri eta desagertzeko? Ah! Muniparen misterioa.

Theodor.

Ja! Ikusten?

Lionel.

Bale, zun nahi duzuna. Eta orain zimeldu nahiko nuke. Bakean utziko nauzu?

Theodor.

Bale. Molestatu bazaitut, barkatu, eh?

Lionel barrura sartzen da.

Lionel.

Ay!! Lagundu.

Bien artean pilororaino sartu zaion patinete bat ateratzen dute.

Lionel.

Ditxosozko katxarroa!

Theodorrek hartu eta ibiltzen hasten da.

Theodor.

Ia berria dago!

Lionel.

Hara, hain zuzen honek burura dakarkit... Ez, utzizu.

Theodor.

Zer?

Lionel.

Ezer ez.

Theodor.

Kontatu.

Lionel.

Ondo da. Arestian morroi bat ikusi nuen horrelako patin batekin, ejekutibo bat.

Theodor.

Ene bada! Ejekutibo bat!

Theodor.

Zertara dedikatzen dira ejekutiboak?

Lionel.

Jakin beharko zenuke ... Bilbao ejekutiboz josita dago.

Theodor.

Baina ez dakit zer egiten duten.

Lionel.

Ba...Maletinak eraman, dietak kobratu eta ejekutibo galtzerdiak jantzi.

Theodor.

Bueno, John Wayne-k esan zuenez, "norbaitek egin behat zuen lan zikin hura". Eta zer egiten ari zen ba, patinetean? Babuarena, ezta?

Lionel.

Hara, Theodor, zuk zer arraio uste duzu, pertsona guztiak babuak direla?

Theodor.

Jakina.

Lionel.

Ba ez. Ba dira pertsona miresgarriak. Solidarioak, sentiberak...

Theodor.

Ez esan pitokeriarik.

Lionel.

Ba erakutsi egingo dizut. Ni ejekutiboa izango naiz.

Lionel eta Theodor lehian hasten dira patineteagatik. Theodorrek amore ematen du.

Theodor.

Ondo da. Egizu zuk ejekutiboarena. Nik Bilboko pertsonaia tipikoa egingo dut: zangak egiten dituen kurrela.

Theodorrek pala eta kaskoa hartzen ditu. Lionelek patina hartu eta ibiltzen hasten da. Bistatik desagertzean zarata entzuten dugu.

Theodor.

Kontuz zanjarekin!!

Lionel.

(Barrura sarturik) Eta zanja hori?

Theodor.

Zer uste duzu, potrojorran nabilela Oraindik jarraitu nahi duzu ejekutiboarena egiten?

Lionel. Bai.

Lionel patinetean ibiltzen hasten da. Publikoaren aurrean gelditzen da.

Lionel.

Hola. Ni BBV-ko ejekutiboa nintzen. Etxea neukan Gran Vian, chaleta Pedernalesen, apartamentua Mayorcan, dena neukan, baina barrutik hutsik nengoen, beraz dena utzi eta mundua patinetean korritzeari ekin diot nire bake mezua banatzen. Tori.

Mezua ematen dio Theodorri.

Lionel.

Irakurri!

Theodor.

“Maitatu”. **Lionel.**

Hori da.

Theodor.

“Maitatu”? **Lionel.**

Bai. “Maitatu”. Zer ba, luzeegia, nahasia?

Theodor.

Ez. Aurrea hartu dizute. Duela gutxi jaso nuen bat berdin berdina korreo elektronikoz. Ez nuen zabaldu badaezpada ere. Birus bat izateko itxura gutzia zeukan.

Lionel.

Korreio elektronikoz?

Theodor.

Bizitzak ze gauzak dituen, eh? Zuk zapata zolak gastatzen zenituen bitartean, listillo potrojotzaile batek konpetentzia egiten zizun ordenadorearen botoi ziztrin bat sakatuz!

Lionel.

Konpetentzia!

Theodor.

Nik mezulari bat kontratatu beharko banu, Internet erabiltzen duen espabilatua aukeratuko nuke. Baina tira, ni ez naiz ejekutibo solidario bat.

Lionel.

Nire bizitzak porrot egin du. Internet!! Baina nola ez zitzaidan burutik pasa?

Theodor.

Seguru ordenadorea saldu zenuela patinetea erosteko! Baietz?

Lionel.

Oh!

Bere korbatarekin urkatzera doa.

Theodor.

Ez hola jarri, zure lanaren alde positiboa aurkitu behar duzu. Begiratu niri: ni orain zanga bat irekitzen ari naiz kale honetan gasa ipintzeko. Lehengo astean itxi nuen zanga berau, duela bi aste ireki nuelako elektrizitatea sartzeko. Duela hiru aste itxia nuen, duela lau aste kable telefonikoa sartzeko zabaldu nuelako. Duela bost aste itxia nuen duela sei aste ireki nuelako fibra optikoa sartzeko. Bizitza osoa daramat zanga honetan. Eta datorren astean, datorren ilean eta datorren urtean zanja honetan jarraituko dudala dakit. Eta sinistuidazu, langile bati horrenbesteko seguritate laborala eskeintzeko kapaz den udaletxe bat, harro sentitzeko moduko udaletxea da.

Lionel begira dauka.

Theodor.

Eta?

Lionel.

Ez, segi, lasai, zanjak zabaltzen eta ixten, oso interesgarria da. (...) Istorioa neurea zen! Ni nintzen protagonista, eta sikieran utzidazu bake santuan neure buruaz beste egiten!

Theodor.

Bai, barkatu. Segi. Ixil ixilik jarraituko dut nik lanean!!

Lionel jarraitzera doan unean, Theodorrek garrasi egiten du eskuak giltzurrintara eramaten dituela.

Theodor.

Aaaah!! Aiiii...! lumbago madarikatu hau! Txarrena zera da, ezingo dudala zangak egiten jarraitu. Jarraitu, jarraitu.

Lionel.

Ez, bukatu dut jada.

Theodor.

Aizu, Lionel, ejekutibo hori ergela ez bazen, ni Aita Sainduaren zakarrontzia naiz.

Lionel.

Errare humanum est. Horrelakoak gara gizakumeak: gure hutsetatik ikasi eta aurrera egiten dugu.

Theodor.

Horrelakoak gara gizakumeak?

Lionel.

Horrelakoak dira.

Theodor. “Gara”

esan duzu.

Lionel.

Ez, “dira” esan dut. Ni ez naiz sartu, jakina, ze ni ez naiz... **Theodor.**

Sartu egin zara.

Lionel.

Ez.

Theodor.

Bai.

Lionel.

Lapsus lingae bat izango zen.

Lionel bere kontenedorean sartzen da. Theodor deika hasten da.

Theodor.

Lionel!! Lionel Zabor!!!

Lionel. (Off) Zer??

Theodor.

Ahh!! Lionel, ze eskandalosoa zaren!! (...) Nola bukatu zuen?

Lionel.

Nork?

Theodor.

Gure ejekutiboak? Bankura bueltatu zen?

Lionel.

Oh, ez, Gernikara joan zen lan egitera.

Theodor.

Ah, Gernika, “Bakearen Hiria”. Oso aproposa. **Lionel.**

Gerente sartu zen arma fabrikan.

Theodor.

Ja!

Lionel.

Dena den, munduan zehar ibiltzen jarraitu zuen.

Theodor.

Bake mezuak banatzen?

Lionel.

Ez, pistolak banatzen.

Theodor.

Patinetez?

Lionel.

Abioiez. Eta orain, axola ez badizu, neure erdoilaren baitan murgildu nahiko nuke.

Theodor.

Jakina. Aizu, ikusten ez bagara, zorte on.

Lionel.

Zortea erabakita dago jada.

Theodor.

Bai. Jakina. Tximinia... Hodei toxikoa.... Ze kolorekoa izango da?

Lionel.

Ez dakit.

Theodor.

Handia izango da? Hiria itzalpean uzteko modukoa. Egunkari guztietan agertuko gara: “Lionel eta Theodor hondakinak Bilbaoko zeruan ikusiak izan ziren atzo. Mundu guztia aho zabalik utzi zuen Theodorren egan egiteko estilo dotorea!”

Theodorrek “hegan” egiten du supermerkatuko gurditxoaz baliatuz.

Theodor.

Gurditxo honek... Madriles ekartzen dit gogora. Ez zara gogoratzen? Alde zaharreko erromes zurrutero bat zen, horrelako gurditxo batean eramaten zituen bere traste guztiak. Oso zakarra zen, baina beti aurkitzen zuen txikitero bat tragu batera konbidatuko zuena. Aspaldian galdu nion pista.

Lionel altzatzen da.

Lionel.

Taberna bateko sotoan egiten zuen lo. 1983eko udan, eurite latzak izan ziren Bilbaon. Ibaiko urak bost metro igo ziren, alde zaharra erabat estaliz. Ibaia bere onera bueltatu zenean, Madriles aurkitu zuten sotoan. Lo harrapatu zuen uraldiak eta ez zuen irteteko denborarik izan.

Lionelek petaka hartzen du eta tragu bat hartu.

Lionel.

Topa, Madrilesen izenean.

Ixilunea.

Theodor.

Eta?

Lionel.

Zer?

Theodor.

Zertara dator hau?

Lionel.

Zu hasi zara.

Theodor.

Ni hasi? Beno, beno, zu zara tristea gero, eh?

Lionel hotzikaraka hasten da.

Theodor.

Hotzak zaude? Ez zen Madriles horregatik izango, ez? Bigunkeriarik ez, eh?

Lionel.

Hotzak nago.

Theodor.

Ea zerbait aurkitzen dudan.

Lionel.

Ez da beharrezkoa.

Theodor.

Bada, bada, gaur egun handia da. Zer nahi duzu, labean sartu mukia darizula?

Duintasuna, Lionel, duintasuna azken orduan.

Metalezko txapa bat ematen dio.

Theodor.

Tori, estali honekin.

Lionel.

Milesker.

Theodor.

Ez horregatik. Nor da kontenedore honetako zaborrik kuttunena? Nor ustelduko da txintxo txintxo kamioia etorri artean?

Lionel.

Aizu, badakizu zer eman didazun?

Theodor.

Ez dizu balio?

Lionel.

Ez dakizu zer den?

Theodor.

Txapa zati bat.

Lionel.

Gughenheim-en zati bat.

Theodor.

Ez...

Lionel.

Bai.

Theodor.

Eta nola heldu da hona?

Lionel.

Auskalo.

Theodor.

Bueltatu egingo dugu?

Lionel.

Zer dizou? Bueltatu dezatela munipek, horretarako daude eta.

Theodor.

Zer esango dute turistek zuloa ikustean?

Lionel.

Agian apropos kendu dute. Artearen mugak oso zabalak dira.

Theodor.

Eta artistak estuak. Hainbeste nahasi dute dena ze ez dakite jada artea zaborra den ala zaborra artea den. Benetan, kontenedore hau Gughenheimen egongo balitz, orduan artea izango zen. **Lionel.**

Eta izan daiteke. Guk ez dugu ulertzen.

Theodor.

Eta nork ulertzen du?

Lionel.

Jende... gutxik.

Theodor.

Zenbat da gutxi?

Lionel.

Kontenedore hau betetzeko adina bai, behintzat.

Theodor.

Eta zertarako egin dute horren museo handia?

Lionel.

Proporzio kontua da. Pentsa ateko txakurra ze handia den.

Theodor.

Egiazu kasu, artea kirtenkeria galanta da.

Lionel.

Ez nago ados.

Lionel eta Theodor kontenedoreetan sartzen dira. Theodorrek kapela estrafalario bat hartzen du. Lionelek bisera eta pistola.

Lionel.

Ezetz asmatu zer naizen.

Theodor.

Udaltzaina!

Lionel.

Udaltzaina ezta burutik jota ere. Segurata. Enpresa pribatua! (Bisera bat jazten du) Etorkizun handiko lanbidea hiri honetan.

Theodor.

Ondo, zu segurata, eta ni artista bat, Gughenheimen erakusketa bat aurkezten duena.

Lionel bila hasten da.

Lionel.

Hola, zu artista zara?

Theodor.

A ze galedera! Non hasten da artea eta non bukatzen da atxikoria?

Lionel.

Bueh... Non daude koadroak? Agentzian erakusketa zaintzera etortzeko esan didate eta...

Theodor.

Ez dago kuadrarik, nolabait.

Lionel.

Orduan zer dago, eskulturak edo?

Theodor.

Instalazio bat.

Lionel.

Instalazio bat?

Theodor.

Ez didazu entzun?

Lionel.

Bai, instalazio bat.

Theodor.

Instalazioa esango nuke dela artista baten espresabiderik libreena, nolabait. Honenbestez, edozer kabitzen da instalazio batean, alajaina.

Lionel.

Dabuten. Eta non dago?

Theodor.

Non dago zer?

Lionel.

Instalazioa.

Theodor.

Ba nolabait, alegia, ez dago.

Lionel.

Nirekin geratu nahi duzu?

Theodor.

Nire instalazioa instalaziorik ez egotean datza, honenbestez. Alegia, instalaziorik eza da nire instalazioa. Hemen ez dago ikuslerik, publikoak berak sortzen du artea esan dezagun... beren irudimenean.

Lionel.

Dabuten. Eta kobratu, nork kobratzen du?

Theodor.

Emazteak, dibortzizatuta nago.

Lionel.

A ze pagotsa! Non apuntatu behar naiz, ba, artista izateko?

Theodorrek barre egiten du.

Lionel.

Gerrian pistola bat daramadalako sentsibilitaterik ez dudala uste duzu?

Museo hau kartoletaraino betetzeko adina talentua daukat.

Theodor.

Erakutsi...

Lionel.

Zoaz pikutara!

Theodor.

Banekien kikilduko zinena.

Lionel.

Kaguen Calatrava! (...) Hastapenean ipurdia izan zen... Ipurdi zurbil erori bat, granoz beterikoa. Eta erdian zulo beltz bat: ezer eza sinbolizatzen duena. Eta zulotik gorotz lodi bero bat irten zen, erdiminetan... Eta ipurdiak gorotzari esan zion: zimaurrea, zu zara bizitzaren hastapena, zu zara bizitzaren amaiera.

Hazi eta multiplika zaitez. Eta hala, gorotzetik protozoa sortu zen, protozootik paramezioa, parameziotik mikrobia, mikrobiotik larba eta larbatik eulia. Eta euliak mun egin zion gorotzari eta zaborraren printze bihurtu zen.

Theodor.

Eman za zabal zazu munduan zaborra!!

Musikaz lagundurik, "instalazio" bat osatzen dute. Theodor Papa Noel eta Lionel euliarena egiten dute. Kontenedoreekin trineo bat egiten dute, euliak bultzaturik. Musika bukatzen denean...

Theodor.

Beno, beno, hau da instalazio bat?

Lionel.

Bai, instalazioa eta performantzia, dena batera. Jeniala, eh, Theodor?

Theodor.

Jeniala? Zuk detergentea edan duzu ala zer arraio, Lionel?

Lionel.

Ez duzu ulertu?

Theodor.

Ulertu zer? Edurnezuriren ipotxak paketeak banatzen dituela ordu libreetan?

Lionel.

Zu ez zara edurnezuriren ipotsa. Santa Klaus zinen!!!

Theodor.

Kontenedore batean?

Lionel.

Ez, trineo bat zen.

Theodor.

Eta non daude renoak?

Lionel.

Ez dago renorik!!!

Theodor. "Motonieve"

bat? **Lionel.**

Ez!!! Euli batek eramaten zuen!!!

Theodor.

Euli batek... Komentariarik ez.

Lionel.

Hara, Theodor, zu Walt Disneytik atera eta jada ez duzu ezer ulertzen.

Irratia pizten da. Eguraldiaren berri ematen ari dira.

Theodor.

Biharko eguraldia! Ixo!

Lionel.

Theodor...

Theodor.

Tsssst!!! Utzidazu entzuten!!!

Lionel.

Theodor, zertarako...

Theodor.

Ixiltzeko ba!

Lionel.

Zertarako jakin nahi duzu biharko eguraldia?

Theodor.

Gure berri entzun nahi dut.

Lionel.

Ze berri?

Theodor.

Hodei toxikoa. Lehenengo aldia da irratian aipatzen nautena.

Irratiak parte osoa ematen du. Eguraldi ona. Bukatzean, ixildu egiten da.

Theodor.

Ez dute ezer esan. Ez dute ezer esan lainoaz. Zer arraio, ez al dugu existitzen?

Ixilunea.

Lionel.

Badakizu nolakoak diren metereologoak, beti huts egiten dute. Gainera, gure berri, metereologoek ez, kontaminologoek eman beharko lukete. Baina jakina, irratian ez dago parte kontaminologorik. Sistimari ez zaio interesatzen, arriskutsuak garelako. Badakitelako eurak baino indartsuagoak garela, eta ixilarazten...

Theodor.

Eta irrati honi zer arraio gertatzen zaio? Zergatik pizten da? (Irratiari) Hondatuta zaude, ea buruan sartzen zaizun! Eman amore... Eta ez eman kaparradarik. Duintasun apur bat, jode!!

Lionel.

Tira animatu!

Theodor.

Ez. Banoa neure kontenedorera.

Lionel.

Ez, geratu hemen.

Theodor.

Ezetz.

Lionel.

Baietz.

Theodor.

Ezetz.

Lionel. Baietz.

Lionelek kilikiliak egiten dizkio, Theodor bigundi arteraino.

Theodor.

Beno...

Lionel.

Ea, bilatu hortik, ea zertaz egiten dugun barre.

Paper bat ateratzen du.

Theodor.

Maitasunaz?

Lionel.

Primeran! Maitasuna etxe batean sartzen denean, intelijentziak maletak egiten ditu.

Lionel.

Maitasun karta bat aurkitu dut. Irakurriko dut.

Lionel. (...)

Ez.

Theodor. Bai.

Theodorrek kilikiliak egiten dizkio. Lionelek zakarki mozten dio.

Lionel.

Ezetz!!

Theodor.

(Moztuta) Zergatik ez?

Lionel.

Txotxolokeriak debekatuta daude.

Theodor.

Ea zer dion mozolo honek: “Ene maitea...”. Ja, oso orijinala! **Lionel.**

Eta nola nahi duzu ba, hastea? **Theodor.**

“...zulaturiko globo bat zara, neure eskuetatik irristatzen ari. Zure oinazea neure oinazea da. Garratzegia da. Agur. Baina gogoan izan erotzeraino maitatu zaitudala.” Ja, ja, ja... **Lionel.**

Ja...

Theodor.

“Zulaturiko globo bat”. Asmatu al da inoiz metafora ergelagorik? **Lionel.**

Baina zergatik hitz egiten duzu jakin gabe? Ba al dakizu akaso istorioa osoa? Imajinatu dezakezu sikeran maite duzuna galtzeko zorabioa?

Bakarrik geratzeko samina? Ke ba! Zera jakingo duzu zuk maitasunaz!

Theodor.

Maitasuna etxean sartzen denean, arrazoiak maletak egiten dituela.

Lionel.

Maitaleek akaso burua galduko dute, baina sikeran bizirik daude, eta askok ezin dute hori esan. Andra bat zegoen lehen, Bilbaon, Arrikibarreko plazan...

Theodor.

Arrikibarreko eroa?

Lionel.

Berbera. Gaztetan, harakin batek gezurrezko maitasuna aitortu zion, musu merke bat irabazteko, baina arakinaren gezurra inoizko egirik borobilena bihurtu zuen andreak... Betirako maitasuna agindu zion. Arakina beste andra batekin ezkondu zen, familia egin zuen... Arrikibarreko plazan zuen arategia, eta bere aurrean, banku batean emakumea egoten zen goizetik gauera, halako kapela erraldoia eta kilo beteko makilajearekin, bere gizonari alferrik itxaroten. Sekula berriro ez zuen gizonarekin hitz egin, sekula ez zen harategian sartu.

Theodor.

Begetarianoa izango zen.

Lionel.

Harakina jubilatuta arte, han egon zen andrea, egunero egunero. Jendeak barre egiten zion, baina ordainduko nuke nik, bere harrotasunaren laurdena izateko.

Theodor.

Eta zer gertatu zen harakina jubilatuta zenean?

Lionel.

Denda itxi zuten eta andrea desagertu zen.

Lionelek petaka ateratzen du.

Lionel.

Topa!!

Theodor.

Beno, ze arraio nahi duzu, negarrez hastea?

Lionel.

Ez.

Theodor.

Zu zara tristea, zu zara ilun eta...

Irratia pizten da.

Lionel.

Eta orain gogaikarri hau!

Kanta "Basura me volvi" boleroa da. Izugarri gustatzen zaie. Dantzan egiten dute. Bukatzean...

Theodor.

Ez dakit zer duen kanta honek, baina ze polita den, ez? **Lionel.**

Poesia ederra da. "Basura me volvi". **Theodor.**

Bai... eta ez txotxolo honek idatzi duena: "Zulaturiko globo bat..." *Karta poltsikoan gordetzen du.*

Lionel.

Hara, ze uste duzu, ondo idaztea ez da erreza. Poesia egitea oso garestia dago. Eta oso merkea saltzen da. "Nire poesia oso merkea da. Heriaren ahotik hartu nuen debalde, eta debalde ematen diot herriaren belarriari." Gabriel Aresti.

Theodor.

Aresti!

Lionel.

Bilboko poeta madarikatu bat zen.

Theodor.

Non irakurri dut nik zeozer Arestirena... Egon...

Lionel.

Zuk, Aresti irakurri?

Theodor.

Ba bai, ze uste duzu...

Kontenedorean bilatzen du. Kale plaka bat ateratzen du. "Calle Gabriel Aresti kalea".

Theodor.

Hemen: “Calle Gabriel Aresti kalea”. **Lionel.**

Hau bai xelebrea, ze behin zera idatzi zuen “Jainkoak ez dezala nahi

Bilboko karrika bati nire izenik eman diezaiotela...” **Theodor.**

Horrek zer esan nahi du, politikoak ez zuela irakurri poetaren poesiarik...?

Lionel.

Edo irukurrita ere, bost ajola zitzaiola poetak esan zuena. Tira, ze espero dezakegu politikoengandik.

Theodor.

Gauza on bat badute. (...) Korrupzioak dira. Istorio bat imajinatzen ari naiz.

Theodor bere hausnarketan satzen da. Lionel kuriositatez hubiltzen zaio.

Lionel.

Eta? Istorioa zer? Polita da, zikina?

Theodor.

Behin, Europa erdiko hiri handi batean, olerkari pobre bat bizi zen, inork kasurik egiten ez ziona. Bulego batean egiten zuen lan, eta bere bertso ederrak ere hantxe moldatu, izkutan. Atzo, bapateko gaitz batek jota, hil egin zen.

Lionel negarrez hasten da.

Theodor.

Ipuina da, Lionel! (...) Nik bulegora doan politikoarena egingo dut. Zu bulegoko garbitzailea izango zara. (Detergentea ematen dio) **Lionel.**

Garbitzailea, ez mesedez! Nire printzipioen kontra doa.

Theodor.

Oso paper polita da. Pertsonaje maltzurrek, gaiztoek badute halako xarma berezi bat... Gogoratu Anthony Perkins, Psikosisen, bainerako eskenak zelako ospea eman zion!

Lionel.

Ah, egia da... (Maltzurrarena egiten) Ja, ja ja!

Theodor.

Ez, itxoin, detergentea ez. Zu pertsonajea gehiegi sartzen zara... Agian berotasunarekin... kontrola galdu eta...!!

Lionel.

Ez esan pitokeriarik! Ni pertsonajea sartzen naiz, baina ez dut inoiz kontrola galtzen!!

Theodor.

Seguru?

Lionel.

Heldua naiz, Theodor!!

Theodorrek maletin bat hartzen du.

Theodor

Non daude poetaren eskuizkribuak?

Lionel.

Goiz goizean gizon ilegorri bat etorri da, bibote haundi batekin eta denak eramanez, erakusketa bat egiteko.

Theodor.

Sánchez, diputaziokoa! Aurrea hartu dit. Argazkiren bat izango zuen bere bulegoko mahaiean, emaztearena, semealabena. Eman argazki guztiak!

Lionel.

Beste batek eraman ditu. Gizontxo lodikote patilladun bat.

Theodor.

Etxabe, gobernukoa! Kaka zaharra, nik poeta zenduari omenaldia egingo diot, bere azken porrusaldako patata azalekin bada ere. Ea, zer da hau?

Lionel.

Poetaren paperontzia.

Theodor.

Errekisatua.

Barrukoa lurrera botatzen dute.

Theodor.

“Manuel: gero bueltatuko naiz. Ez ikutu paperak” **Lionel.**

Manuel ni naiz. Ez zitzaion gustatzen paperak... **Theodor.**

Tsst!! “Gero bueltatuko naiz, ez ikutu paperak! Heptasilabo perfektuak dira!

A ze kadentzia, a ze erritmoa! Oh, zergatik hil zitzaigun hain goiz...?”

Lionel.

Prostatarena konplikatuta zitzaion... **Theodor.**

Galdera erretorikoa zen. (Beste paper bat) “Erosi tipex”. Unkiagarria!! **Lionel.**

Hori poesia da? **Theodor.**

Komentariarik ez. Ea zer gehiago. “Eskatu prestamoak bankuan”. Laburra, soila... Estilo ariketa bat.

Lionel.

Gizajoak ez zeukan ez ta etxea pagatzeko ere. Prestamoak eskatu zituen banku guztietan baina kia, abalik ez zuenez...

Theodor.

Gure poeta poesia soziala egin zuela insinuatzen duzu? Poeta soziala, egundo holakorik!

Lionel.

Ez, nik ez dut ulertzen... **Theodor.**

Ohhhh!!! Ohhhh!: “Estropajoa, eskotx brite, amoniakoa, komuneko papera, lejia konejo”! Asma liteke zerbait prosaiko eta aldi berean delikatuagorik?

Lionel.

Ona da ?

Theodor.

Batez ere “Konejoa”-ren ikutu apurtzailea. Ez da kasualitatez amaieran agertzen, diskurtsoa mila zatitan birrintzeko. A ze talentoa!

Lionel.

Neuk idatzi nuen.

Theodor.

Ta zergatik ez duzu esan? Artistarena egin nahi zenuen? (Botatzen du) Bildu dena eta eraman udaletxera.

Lionel.

Udaletxekoa zara? Poetak zera esaten zuen, zuei bost ajola zitzaizuela bere lana.

Theodor.

Nonbait idatzita utzi zuen hori? (...) Orduan ez du existitzen. Idazle bati buruz ari gara. Ahozko literatura beste kontu bat da. Gainera, jakin beharko zenuke, poeta bat zenbat eta hilago egon, orduan eta hobea da. Hildako poetak ez du jada hitz egiten. Hare gehiago, poetek egin ahal diguten mesederik handiena denak behingoagatik hiltzea da. Agur.

Theodor badoa. Lionelek detergente fraskoa eskuan dauka. Tapoia kentzen du, eta petaka balitz, aidera altzitzen du.

Lionel.

Topa, hildako poetarengatik.

Edan egiten du. Fraskoa poltsikoan gordetzera doanean konturatzen da ez dela petaka, detergentea baizik. Konbultsioak ditu. Hartan...

Lionel.

Garbitu... Garbitu... Garbitu.

Aretoa txukuntzen hasten da. Kaskoa eta motxila jazten ditu.

Lionel.

Desinfektatu, dezratizatu, deintoxikatu... Garbitu, garbitu... Baina nola utzi duten hau!! Zerri halakoak! Kalea garbitu behar dut. Hiriak niregan uste osoa jarri du eta nik ez diot hiriari huts egingo, ez horixe.

Theodor bueltatzen da.

Lionel.

Ea, zu, zakarrontzira oraintxe bertan!!

Theodor.

Baina zer diozu?

Lionel.

(Eskobarekin mehatxatuz) Segi barrura!

Lionelek Theodor "garbitzen" du. Theodor eskobarekin alboratu egiten du.

Theodor.

Bale, bale, sartu egingo naiz, baina kontuz horrekin, deabruak kargatzen ditu eta.

Lionel.

Baina nora zoaz? Kontenedore horretan plastikoa sartzen da. Eta beste horretan papera. Ez, itxaron, nola zen...? Hori kristalarena eta hau pilena? Beno, berdin dio, zu zabor organikoa zara, sartu zaitez zure kontenedorean oraintxe bertan!

Theodor.

Hara, Lionel, erridikuloa egiten ari zara!

Lionel.

Mesedez, marroi batean sartuko nauzu. Bigarren eguna dut lan honetan, oraindik frogan nago, eta atzo jada ederto sartu nuen anka: mangera tokatu zitzaidan, esan zidaten grifoa nola zabaldu, baina ez nola itxi, eta lau ordu

eman nituen tronpa baten moduan bueltak eman ez, Plaza Berria piztina Olinpiko bihurtu arte. Gaur ezin dut huts egin. Eta ez dut huts egingo. Bukatu dira koplak!! Irten zaitez hortik oraintxe bertan ala jata garbituko zaitut!!

Theodor.

(Zabor boltsa bat botatzen dio) Beno, nahikoa dugu, eh?

Lionel.

Lehenengoa izan delako, baina berriro...

Theodor.

(Beste zabor poltsa bat botatzen dio) Ixildu behingoz!

Lionel babes bila doa.

Lionel.

(Irratiaz berba egiten duela mimatzen du) “Detergente 007 baseari deika, detergente 007 baseari deika. Hondakin tematsu batekin topo egin dut. Instrukzioen zain nago. Bai, horixe moldatzen naizela neu bakarrik, besterik ere behar genuen... Kanbio eta korto.” **Theodor.**

Ixildu, xurrutero!...

Lionelek “bozgorailu” bat hartzen du.

Lionel.

Entzun arreta handiz: inguratuta zaude, sartu zaitez zure kontenedorean edo garbindarra erabili beharko dugu. Txintxo portatzen bazara zabortegia aukeratu ahal izango duzu!!

Theodor.

Ondo da, jolastu nahi baduzu, jolastuko dugu. Alirote, alirote, barrendero el que no bote!! Alirote, alirote, barrendero el que no bote!!

Lionel.

Ni no ni no....

Theodor.

Ixildu zaitez zu, Mr Proper!

Lionel.

Okupa!

Theodor.

Skotch brite!!

Lionel.

Potro zorri!! **Theodor.**

Garbineitor!

Lionel.

Kaka mokordo!!

Erasora doaz. Borrokan egiten dute arik eta kontenedoreetan desagertzen diren arte. Borroka amaitutakoan...

Lionel.

Baina a ze kaskatekoa!! Zertara etorri da?

Theodor.

Banekien gertatuko zela, eh? Zu pertsonajeen gehiegi sartzen zara!

Lionel.

Eta zer egiten duzu nire kontenedorean? Eta zer egiten dut nik nire kontenedorean? Eta nork ekarri ditu kontenedoreak hona?

Theodor.

Ez dizut hitzik ere egin nahi, oraindik deterjentearen efektupean zaude.

Lionel.

Ni? Deterjentea? Baina zer diozu?

Theodor.

Bale, zuk nahi duzuna. Ez duzu deterjentea edan, ez duzu txukundu, ez duzu eskobatu, ez duzu garbitu. Orain utzi bakean.

Lionel.

Nik eskobatu? Garbitu? Txukundu? Ze pitokeria da hori?

Theodor.

Kitto.

Lionel.

Nik ez dut inoiz kontrola galtzen!

Theodor.

Ez.

Lionel.

Pertsonajejan sartu bai, baina kontrola galdu ez!

Theodor.

Ez dut existitzen!!!

Theodorrek ikurrinaz burua estaltzen du.

Lionel.

Ja! Hamaika ikusteko jaioak gara. Ikurrina bat kontenedore batean. Dena den ez naiz harritzen, hainbeste parabellumekin, ez dira lirikarako garai onak. Gaur ondo ikusia dagoen aldeanismo bakarra aldea globalarena da.

Theodor.

Ez zara ixilduko, ez!

Lionel.

Ah, oso ondo, zu martxarekin zeundenean denak dantza egitera: ergelak hemendik, ergelak handik. Orain jaunak ez du existitzen, orain denak ixilik, kamioia kredoan esaten itxoitera. Ba orain ez dut nahi. Orain istorio bat kontatuko dut, eta ikusiko duzu nola ez dudana kontrola galtzen. Eta gehiago esango dizut: nire azken nahia da!

Theodorrek ikurrina ematen dio eta kontenedoretik irteten da limpiaparabrisarekin. Lionel kotxe batean dgoela mimatzen du.

Lionel.

Ahhh ene míseroa! Infelice!

Theodor.

Parabrisa garbituko?

Lionel.

Ez. Ez dut nahi.

Theodor.

Minutu bat baino ez da.

Theodor "garbitzen" hasten da.

Lionel.

Ez, urrundu nigandik. Nazkagarria naiz. Nazkagarria.

Theodor.

Arrazoi duzu, nazkagarria dago.

Lionel.

Ez zait ezer nabari?

Theodor.

Bai, ez duzula parabrisa urteetan garbitu. Baina hauxe da nire lana. **Lionel**

Zera bihurtu naiz... oh... ..nazionalista.

Theodor.

Lapurtzea baino hobea da, ez duzu uste?

Lionel.

Esnatu eta berehala konturatu naiz.. Goizero bezala lehiotik begira paratu naiz... eta ikusi dudana ez zen eguneroko mendi malda itxusia, ez... Nire sorterriko zelaitxo berdeñoak ziren!! Eta oilo ipurdia jarri zait!!

Theodor.

Hau ziztu bizian kentzen da.

Lionel.

Ja! Hori pentsatu dut nik, baina bai zera. Gero irratia piztu eta nik hainbeste gorroto ditudan musika folkloriko horietako bat hasi da. Eta ustekabeen nire oinak hasi dira errtimora dantzatzen, eta ezin nien eragotzi.

Theodor.

Zuk eragotzi arren nik garbitu egingo dizut, ba ez nauzu zuk ezagutzen!

Lionel.

Hor nengoen ni, agerraldi lakrimojeno horiek gorroto ditudalarik, neure sukaldean, “orpo punta, orpo punta, buelta erdia eta jira, orpo punta, orpo punta, buelta erdia eta berriz” **Theodor.**

Ondo da, insisitzen baduzu berriz garbituko dizut. **Lionel.**

Gero balkoira irten eta ohiuka hasi naiz: “Gora idiosinkrasia!”. Gero kalera irten, turista batzu ikusi ditut Gughenheimer bidean eta zera sentitu naiz, oh... (negarrez) desberdin...

Theodor.

Horixe desberdin geratzen dela!

Lionel.

Eta askoz hobea!

Theodor.

Eskerrik aso. Ni profesionala naiz!

Lionel.

Zergatik niri? Zergatik?

Theodor.

Nire semaforoan gelditu zarelako.

Lionel.

Baina ez da zuzena. Ni zentralista nintzen, ni jakobino porrokatua nintzen. Ni alde globalakoa nintzen. Esperantoa ikasten ari nintzen. Ni munduko hiritarra nintzen!!

Theodor.

Bai, baina kristalak berdin zikintzen dira.

Lionel.

Bidaiak egin beharko ditut. Bidai agentzia bat sortu dute, propio nazionalismoa sendatzeko. Lehenengo bidaian azentoa galtzen duzu. Bigarrenean ama hizkuntza ahaztu. Eta hirugarrenean herri ezaugarri bereizgarriak higuintzen bukatzen duzu.

Theodor.

Kasi kasi bukatu dut.

Lionel.

Zer esango du jendeak? Nire lagunek...?

Theodor.

Ba berria bezela dagoela.

Lionel.

Oh... jainko maitea, nire emaztea enteratzen denean... Pentsatzen jarrita, nire emaztea kanpokoa da! Eta zu? Zu ez zara hemengoa, ez?

Theodor.

Tira, hemengoa hemengoa...

Lionel.

Jakina, oso erreza da kanpotik etorri eta kritikatzten hastea. Kanpotik dena oso erreza ikusten da. Hemen bizi beharra dago, eguneroko biztitza egin, ulertzeko zer... (Berrito negarrez) Ikusten? Monstruo bat naiz. Urrundu zaitetz nigandik, hobe da zuretzat. (Badoa) "Orpo punta, orpo punta, buelta erdia eta jira, orpo punta, orpo punta, buelta erdia eta aurrera"

Badoa dantzan.

Theodor.

Kontuz, zanjarekin...

Burrundaia entzuten da.

Theodor.

Ondo merezia duzu, pagatu gabe joateagatik.

Theodor.

Eh, kotxe hori nirea da, nik ikusi dut lehenago!!

Theodor irten egiten da. Lionelek bueltan ez du Theodor aurkitzen.

Lionel.

Hara, paperean sartzen naizenean, sartu egite naiz... Theodor!! Theodor, non...? Theodor???

Zaborraren kamioia entzuten da.

Lionel.

Theodor, kamioia! Goiko kalean dago!!! Zatoz ikustera! Galdu egingo duzu!!!

Erantzunik ez. Kamoiaren zarata ereagotu egiten da. Lionel kontenedorean sartzen da. Panpina ateratzen du ikus dezan. Zarata gero eta beldurgarriak entzuten dira. Lionel kikiltzen hasten da. Panpinari begiak ixten dizkio ikus dezan. Handik gutxira Theodor sartzen da. Theodorrek eskena ikusten du. Harrituta geratzen da. Lionelek panpina kontenedore batean sartzen du. Gero Theodorrek karta poltsikotik hartu

eta irakurtzen du ixilean. Lioneli karta ematen dio. Ixiltasuna gordetzen du. Lionelen ondoan ipini eta elkartasunezko keinu bat luzatzen dio.

Lionel.

Kamioia bertan dago jada. Goazen gure tokitara. Ez dakit behar bezain ustelduta nagoen, hainbeste berriketarekin...

Theodor.

Zatoz hona.

Theodorrek “apaintzen” du.

Theodor.

Higuingarria. Eta ni?

Lionel.

Nahiko txarto.

Theodor.

Nahiko txarto ez da nahikoa.

“Giza-anuntzio” kartel bat ateratzen du. Bertan lan despido ezegoki baten denuntzia egiten da. Ipini egiten du.

Theodor.

Begira... Vinaspreren moduan, ez duzu gogoratzen? Tipo xeibre hura... horrelako karteekin ibiltzen zena...

Lionel.

1982ean Eusko Trenbidean greba egon zen. Langileak pixkanaka pixkanaka bueltatu ziren lanera. Vinasprek grebari eutsi zion. Handik gutxira lanetik bota zuten. Eta diputazioaren atean jartzen zen, bankuen aurrean... Norbaitek zerbait galdetzen bazion, egundoko txapa botatzen zion.

Theodor.

Burutik zegoen!

Lionel.

Batzuek erotuta zegoela esaten zuten. Beste batzuentzat borrokalari peto pertoa zen. Funtsean adineko gizon bat zen, kalegorrira botatakoa, jada ezertarako balio ez zuena. (...) Zabor bihurtu zen. *Lionel eta Theodor elkarri begira lipar batez.*

Theodor.

Zelan joan zitzaion?

Lionel.

La Salveko zubitik behera bota zuen bere burua.

Lionelek petaka hartzen du eta edaten du.

Lionel.

Topa!

Theodor.

Eta?

Lionel.

Zer?

Theodor.

Zertara dator hau?

Lionel.

Zu hasi zara...

Theodor.

Beno, beno... Zu zara tristea!!!

Theodorrek kartela kentzen du. Jaka bat hartzen du.

Lionel.

Nondik atera duzu hori?

Theodor.

Hortik.

Lionel.

Emaidazu.

Theodor.

Baita zera ere! Nik aurkitu dut.

Lionel.

Eman, nirea da.

Theodor.

Zurea? Zergatik zurea?

Lionel.

Ez dakit, baina nirea da.

Lionelek hartu eta jazten du.

Theodor.

Hara! Zabortegean jabego probatua aboliturik zegoela uste nuen nik! Ahoa betetzen zitzaizun esanez "Zaborra gorri ala zuria, denontzat zara zu geuria"...

Hitz hutsak!!! **Lionel.**

Egun on, lan bila nator.

Theodor.

Eh? Zer? Ah! Hori da nire Lionel. Azkeneko istorioa!

Kontenedoretik "atrezzo" pieza bat hartuz...

Theodor.

Zer duzu?

Lionel.

Lan bila nator.

Theodor.

Nola... Langabezian zaude? Hori bai bitxia!

Lionel.

Azkeneko boladan txirula jotzen nuen Kalatrabako pasarelan, baina lehengo astean Varsobiako orkestra sinfoniko oso bat etorri da eta ezin dut kompetentziarekin.

Theodor..

Une egokian etorri zara. Hiria pil pilean dago. Urrutira joan gabe, zer moduz turistarena egiteko? Sandaliak, praka motzak eta alkondara loredunarekin jantzi eta edifizio enblematiko baten aurrean kokatzen zaitutgu, mapa bat eskuan, aurpegikera alaiarekin. Turismoak turismoari deitzen dio.

Lionel.

Erreza dirudi. Apunta nazazu.

Theodor.

Bikain. Zenbat hizkuntz dakizu? (...) Oh... Kasu horretan... Baina ez galdu esperantza. Lana esportatzeko adina daukagu. Esatebaterako, dantzari espontaneoak. Poxpolinez jazten zara, kale bazter batean izkutatu eta kanpotar bat agertzen denean, ras! Dantzan hasten zara bere aurrean, Bilbao erromeria amaigabea izango balitz bezala.

Theodor kantetan hasten da, panderoa jotzeko imintzioa eginez, Lionel jota dantzatzen duen bitartean.

Theodor.

“Ene maitia zer dosu... kolore txarra dekosu... kolore txarra kentzeko nirekin lo ein biar dosu...” Utzi utzi, kolore txarra kanpotarrari jarriko zaio.(...) Hara, adineko modeloak behar dituzte pasarelarako. Ea, ba, ibili.

Lionel dabil.

Theodor.

Utzi, sudur horrekin... Akaso desfile surrealista batean... Sudurra! Harrijasotzaile bat behar dugu parke tematiko baterako... Baina ez, argalegi zaude. Egon, egon, Anorexiaren kontrako iragarki baterako pertsona bat behar dugu... Baina ez, potoloegi zaude. **Lionel.**

Ez al dago ezer pertsona “normal” batentzat? **Theodor.**

Bai, mila lanpostu berri atera dira.

Lionel.

Zer egiteko?

Theodor.

Ezer ez. **Lionel.**

Zer da “ezer ez”?

Theodor.

Ez dela lanik egin behar...

Lionel.

Nork kontratatzen du, Olentzeroak?

Theodor.

Ez. Bilbao Jauja 2000k.

Lionel.

Ze koña da hau?

Theodor.

Ez dago koñarik.

Lionel.

Ez da titulorik behar?

Theodor.

Ez.

Lionel.

Ez da guapoa izan behar, ilehoria, altua, gaztea... ezer ez?

Theodor.

Ez, tontoena ere onartzeko diseinatuta dago...

Lionel.

Apuntatu niri.

Theodor.

...entxufe egokia edukiz gero, jakina.

Lionel.

Kaka zaharra! Gaur egun lana topatzea den errezarekin, zergatik kostatzen zait niri hainbeste?

Theodor.

Bah... Bolada txar bat.

Lionel.

Ja. Hamabost urtetako bolada txar bat.

Theodor.

Egon egon, zuk zenbat urte duzu?

Lionel.

Berrogeitamar.

Theodor.

Orduan zertara zatoz?

Lionel.

Lan bila.

Theodor.

Txantxetan? Zu ez zaude lan egiteko moduan.

Lionel.

Zer egiteko moduan nago?

Theodor.

Atsedean hartzeko. **Lionel.**

Ez nago nekatuta.

Theodor.

Jakina, kolpe zorririk ez duzu jo ta...

Lionel.

Kontuz esaten duzunarekin!! Nik lan egin dut, ahal izan dudana beste!! Nire taberna txikia zen baina banderaraino zegoen beti. "Marchando una de champis! Que sean dos!!!" Baina hauzokoek zaratagatik denuntziatu ninduten, eta egun batean, munipak, alfer poto horiek, lan egitea erabaki, eta taberna itxi zidaten. Gero seguratarena egin nuen, baina nik burua handiegia daukat, eta ez zitzaidan txanoa sartzen, eta bota ninduten. Gero garbitzaile saartu nintzen. Bi egun iraun nituen. Kaleko arte lan bat apurtzeagatik bota ninduten. Instalazio bat! Nola jakin behar nuen nik zabor meta hori artea zela?

Theodor.

Eh... ez zaitez hain serio jarri, motel. Historio bat da, besterik ez.

Lionel.

Ez, Theodor, egia da.

Theodor.

Baina zer...?

Lionel.

Egia, Lionel.

Jakatik kartera hartu eta lurrera botatzen du. Theodorrek hartzen du.

Theodor.

Hara ze tipo xelebrea!!! A ze sudurra!!! (...) Tratu bat genuen, Lionel... (...) Ni soldadore izan nintzen Euskaldunan. **Lionel.**

Nor da “ni”? **Theodor.**

Ez dakit. Astilleroak itxi zituztenean zangak egiten ibili nintzen, baina oso konplikatuoa zen: airtel jarri behar nuenean vasotel jartzen duen, eta hispatel jarri behar neuenan eurtel... Azkenean semaforoetan parabisak garbitzen ibili nintzen... Beno, bukatu da jolasa. Hara, parte batean pozten naiz, ez nuen batere garbi ikusten zabortegean erreta bukatzearena. (...) Hirira bueltatu beharko dugu, gure zain egongo dira, kezkatuak. Baina zer esango dut? “Hara nola dagoen trafikoa!” Ez du funtzionatuko, zuk ez duzu nire emaztea ezagutzen. Hara, neuk ere ez! Zer kontatuko dugu, oportetan egon garela, ostatu merke batean, “Ondakinenean”? Beno, dena delakoa, goazen etxera.

Lionel.

Etixerik duzu ala?

Theodor.

(...) Ba ez dakit. Zer... Bagoaz, ezta?

Lionel.

Ah, bai? Ze uste duzu, besoak zabalik itxaroten gaituztela hirian, pakartekin: “Ongi etorriak etxera.” Bah... Han ez dago tokirik guretzat. **Theodor.**

Bai zera... Milaka gauza daude egin daitezkeenak.

Lionel.

Eta milloika pertsona gauza horiek egiteko. Nik subsidio bat kobratzen nuen. Miseria bat, baina bizirik irauteko modukoa. Ilero ilero joaten nintzen lehiatilara kobratzera, norbera joan behar zen. Lehiatilan neska gazte bat zegoen, beti begietara begiratzen zidana... Agian begirada konplizea zen, baina zera ulertzen nion: “hona hemen gizontxo gauzeztana, bere ileroko zopa boboa edatera datorrena.” Egun batean paperak apurtu nituen bere aurrean. Urteak ziren halako harrotasunik sentitzen ez nuena. Kobratu gabe joan nintzen. Orain hemen nago. Hemen ni norbait naiz. Neure tokia daukat. Inork ez dit esaten zer egin behar dudan. Gustora egon naiz hemen, eta ez naiz ezertaz damutzen. Popatik!

Theodor.

Baina kamioia dator.

Lionel.

Ezer ez da perfektua. Zoaz zu nahi baduzu.

Theodor.

Ah! Txantxetan ari zara.

Lionel.

Ez. Joan zaitez.

Theodor.

Horixe joango naizena! Oraintxe bertan gainera. Eta gauza bat esango dizut, zu kabroi bat zara, lagun bati ez zaio hau egiten, jode. Joan? Horixe joango naizela, oraintxe bertan gainera, noren buruan sartzen da norberaren burua frijitzen uztea, kroketa bat balitz bezala... Ero bati... edo koldar bati... Horixe, koldar bati, bizitzari aurre egiteko kemenik ez duen oilo lumarik gabeko bati.

Oiloa, horixe zara zu. Duintasunaren arrastori ere ez duena. Po po po po po!!
Eta oso gustu txarra duzu txaketak aukeratzen!!

Olioarena egiten duelarik, bere kontenedorean sartzen da.

Lionel.

Ez al duzu joan behar?

Theodor.

Baina nola joango naiz zu hemen utzita, zaren despistatuarekin... Zu kapaz zara plastikoen labean sartzekoa, edo kristalarenean. Kita kita... Ea noiz datorren ditzosozko kamioi hori eta potroak kiskaltzen dizkiguten behingoagatik.

Lionel.

Duintasunez.

Theodor.

Duintasunez edo kerosenez, bost ajola.

Lionel.

Agur, Theodor, zoragarria izan da zu ezagutzea (...) **Theodor.**

Nazkagarria esan nahi duzu, ezta?

Lionel.

Bai, Agur.

Kontenedoretara sartzen dira. Theodor irteten da.

Theodor.

Lionel... Benetan ez dugu aukerarik? (...) Beno, zerbait bururatzen bazaizu, ez ahaztu niri esaten... badaezpadaere...

Sartzen da. Lionel irteten da.

Lionel.

Theodor.

Theodor irteten da ziztu bizian.

Theodor. Zer!!

Lionel

Ez... Ez zait ezer bururatzen.

Theodor.

Jode!

Lionel.

Pena bakarrarekin geratzen naiz. Madrilesekin gogoratu gara... Viñasprerekin... Nor akordatuko da gurekin kiskalita gaudenean?

Theodor.

Horretarako deitu didazu? Dios, Lionel, zu zara tristea gero!

Berrito sartzen dira biak. Segundu batzu geroago, Theodorrek burua agertzen du erresorte baten moduan.

Theodor.

Horixe ba, Lionel, oso ideia ona!! Gu akordatuko gara! Milaka istorrio daukagu kontatzeko!

Lionel irteten da ziztu bizian ere.

Lionel.

Zer kontatu dezakegu guk?

Theodor.

Kontenedore hauetatik denetarik ikusi dugu. Zabortegia hiriaren talaia da. Jendeari euren zaborra erakutsiko diogu.

Lionel.

Horixe!!! Nori interesatzen zaio zaborra? Jendeari abenturazko istorioak edo maitasunezkoak gustatzen zaizkio.

Theodor.

Mesedez! Inor ez da Supermanekin bizi, edo Scarlata O'hararekin. Baina mundu guztiak dauka zakarrontzi bat fregaderoaren azpian. Jendea nekatuta dago sasi famosen hizkimizkiez. Jendeak zaborra behar du, eta guk eskeiniko diogu.

Lionel.

Baina ez da komertziala izango.

Theodor.

Beno, detaile pikanterren bat sartu dezakegu. Eesatebaterako rollo sadomaso bat panpina inflablearekin.

Lionel.

Pasatu gabe, motel. **Theodor.**

Hara, gure izenak ikusten ari naiz neonezko argitan: "Lionel Zabor and Theodor Zakar in..." Nola esten da zaborra ingelesez? **Lionel.**

Zaborring.

Theodor.

Kopolak gure istorioa zinera eraman nahi izango du.

Lionel.

Nire papera Woody Alenek egitea gustatuko litzaidake.

Theodor.

Robert de Niro belaunikatu egingo zait nirea egiteko. Zine zaborra egingo dugu...Eta teatro zaborra. Eta tele zaborra.

Lionel.

Tele zaborra! Hori ez al dago asmatuta?

Theodor.

Bai zera! Nori bururatuko litzaioke tele zaborra egitea!

Biok.

Guri.

Theodor.

Forratu egingo gara.

Lionel.

Baina gure jatorria ahaztu gabe.

Theodor.

Fundazio benefiko bat egingo dugu, munduko kontenedore guztietan aire akondizionatua jartzeko.

Lionel.

Eta antena parabolikoa.

Theodor.

Eta zabortegietan hilo musikala!

Lionel.

Poliki, Theodor, poliki, esne ontzia apurtuko zaigu bestela. Lehenik eta behin istorio on bat behar dugu.

Theodor.

Banda sonora argi daukat. (Saltsa kantatzen du) Zabooooor! Hasiera ere buruan daukat: nor bere kontenedorean dago, ezta? Orduan baten batek nire kontenedoreari su ematen dio.

Lionel.

Nork? Zergatik?

Theodor.

Ez da ikusiko. Bakoitzak pentsa dezala nahi duena. Orduan nik laguntza eskatzen dut.

Lionel.

Eta nik bizitza salbatzen dizut, nirea arriskuan jarrita.

Theodor.

Nik beste zer bat pentsatua...

Lionel.

Nik bizitza salbatzen dizut edo bestela...

Theodor.

Ados...

Lionel.

Hori bai hasiera ona! Baina amaiera? Nola bukatuko dugu istorioa?

Theodor.

Ba... Ba... ez zait okurritzen...

Lionel.

Lastima... Istorio on batek amaiera on bat behar du.

Theodor.

Ba...

Irratia martxan jartzen da, hasierako kanta berarekin.

Theodor.

Badaukat! Lionel eta Theodor elkarri begira daude, ez dakite zer egin: joan ala geratu. Hartan, ustekabea, irratia martxan jartzen da. Makina zahar erdoildu bat da, pilarik ere ez daukana, eta hala ere, funtzionatzen tematzen da, ez du ixilik geratu nahi. Irratian entzuten den musikak garai onak ekartzen dizkie gogora, eta halako bizipoza sentitzen dute. Musikak aspaldiko partez izan ez duten indarra, kementa ematen die.

Lionel hitz egitera doa, baina Theodorrek aurea hartzen dio.

Theodor.

Lionel esatera doa oso amaiera kursia iruditzen zaiola, baina hobeto pentsatzen du eta ondo dagoela erabakitzen du, oso ondo.

Lionelek onartzen du.

Theodor.

Ez diote ezer esan behar elkarri, baina erabakia hartuta dago. Eta badoaz.

Badoaz.

AMAIERA